

TXIN
PART

69

Elkarrekin

AURKIBIDEA

Bizikidetza Behatokia	4
Jantziko al gara?	5
Berrikuntzak	6
Idazkartiza-zuzendaritza	8
Irakasleak	9
Gurasoak partaide	11
Urmendi Haur Eskola	13
Ikastola eguna	15
Urmendi eguna	17
Hatzak bete lan	19
Agenda 21 taldea	41
Eskuttun	46
Eskolaz kanpokoak	47
Talde baten ibilbidea	49
Laburrak	50
Agurra	51


ARGITARATZAILEA

Hautzaro Ikastola
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun
943 49 16 59
hautzaro@ikastola.eus
LG: SS-129/2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
BIT&MINA

INPRIMAKETA
ANTZA


Paper birziklatuan inprimatua



Dagoeneko ikasturtea ere joan zaigu eta hemen duzue gure Txinpart aldizkariaren ale berri bat, beti bezala, Hautzaro Ikastolan egiten dugunaren berri emateko prest.

Hautzaro Ikastolako Hezkuntza Proiektuaren osagarri dugu Elkarbizitza Proiektua; bertan, gure komunitatea osatzen dugun partaideon arteko bizikidetzaren inguruko oinarriak ezarrita ditugu. Elkarbizitza Proiektu honetatik sortu zen Bizikidetza Behatokia, eta, ale honetan, bertako partaideen hitzetatik jasoko dugu talde honen nondik norakoa zein den. Denok dugu zer ikasi, eta, gurean, ez dira ikasleak eta irakasleak klasera doazen bakarrak. Guraso Eskolen inguruko informazioa ere topatuko duzue.

Udaran egindako azken obren artean laborategia eta teknologia gelak berriro dira. Aldaketa horren bidez, bi eremuak egun ditugun beharretara (bai pedagogikoak, bai espazioarenak) egokitu ditugu, eta gure barne antolamendurako ere lagungarria izan da.





Haurtzaro Ikastolako langileen artean aurrejubilazioekin jarraitzen dugu, eta aurtengo ikasturtean hiru dira, urte askoz ikastolan lan egin ondoren, aurre jubilatuta zaizkigunak: Arantza Urbietta, Maxux Retegi eta Maribi Alonso. Langileekin jarraituz, urtero Donostian ospatzen den enpresen arteko lasterketan parte hartu dute Haurtzaro Ikastolako 20 langilek. Lasterketa horretan, launakako taldetan parte hartzen da, eta helburua da talde guztia batera iristea, talde sena bultzatuz eta lagunartean ongi pasatuz.

Noski, gure ikasleak hatzak bete lan aritzen dira, eta, egindako guztia ekartzea ezinezkoa denez, hemen duzue lagin bat. Ama-semeen arteko elkarrietzeta batzuk ere baditugu literatur sari bana eskuratzearen harira.

Txinparten 69. ale hau zuen gustukoa izango den esperantzan, agur bero bat!



Bizikidetza Behatokia

Haurtzaro Ikastola osatzen dugun komunitatea zabal eta anitz batean (ia 900 ikasle, 1.000tik gora guraso eta 100 bat langile), izugarrizko garrantzia du bertako partaide guztien arteko elkarbizitzak. Komunitatea osatzen dugun ikasle, guraso eta langileon arteko begirunea eta errespetua zaintzea oinarri-oinarrizkotzat daukagu. Honela definitzen dugu Haurtzaro Ikastolan bizikidetza:

«Elkarbizitza proiektua ikastetxearen hezkuntza proiektuaren osagarria da. Bizikidetza positiboaz ulertzen dugu: alde batetik, ikastolako kide guztiek elkar errespetatzea, konfiantza eta komunikazio giroan, eta, bestalde, kritika (eraikitzailea) eta autokritika normaltasunez erabiltzea, gure artean naturaltasunez hitz egiteko bideak eraikiz.

Era berean, denon iritziak lekua izango duen eta partaidetza ahalbidetzen duen giroa sortu behar dugu, taldean lan egiteko elkarri lagunduz, eta proiektuko partaide sentituz. Halaber, elkarrekin adostutako betebeharrak eta eskubideak ezagutu eta bete behar ditugu. Bide horretan, sortzen diren arazoei irtenbidea aurkitzeko, behar den denbora eskainiko zaio, betiere, prozedura hezitzaileak adostuz elkarren artean ondo sentitzeko. Horrek guztiak lagunduko du gure proiektua gauzatzen.»

Legeak horrela eskatuta eta elkarbizitza hobetzeko neurri bezala, Bizikidetza Behatokia sortu zen, foro berri bat aldarrikatuz. Foro honetako partaide dira: Zuzendaritza taldea, Hezkuntza Batzordeko ikasle, guraso eta irakasle ordezkariak, Jantokiko arduraduna, Eskolaz kanpoko ekintzen arduraduna, KEI 3. eremuko ordezkaria, Orientazio Departamentuko LHko aholkularia eta DBHko orientatzailea eta Bizikidetza taldeko gurasoak.

Bizikidetza Behatokia zer eta zertarako den galdetu diegu bertako partaideei eta jarraian dituzue zenbaiten hausnarketak:

IRAKASLEAK

Badakigu hasiera batean Behatokiaren sorrera legeak ekarritako eskakizun bat izan dela, baina gure ikuspuntutik aplikazio hau oso positiboa izan da. Aurretik Haurtzaro Ikastolan bazeuden gai hauek jorratzeko eremu ezberdinak, bere asmo on guztiarekin, baina diziiplina erregulatzen zuten lantalde batzuk izatera iritsi ziren; alegia, gatazkak kudeatzen zituzten barruko organo batean.

Baina Behatokia hori baino sakonago doan edo joan beharko lukeen lantalde bat da. Ikastolaren barruan talde ezberdin ugari daude (ikasleak, irakasleak, gurasoak, jantokiko langileak...) eta guztiok elkarbizitza batean murgilduak gaude. Zenbat eta osasuntsuagoa izan elkarbizitza, orduan eta hobe.

Behatokian parte hartzen dugun guztiok errespetuz, elkarriketa bultzatuz, negoziatuz eta adostasun batera iritsiz, Ikastolaren motorra sendo mantenduko dugu, bertan berdintasunez mintzatuko garelako eta, gainera, proposamen positiboak egingo ditugulako.

Irakasleontzat aukera ezin hobea da Ikastolako talde desberdinetara mezua zabaltzera iristeko, besteekin enpatia sakonki lantzeko eta behar denean laguntza eskatzeko. Era honetan, bidean sortzen diren zailtasunei irtenbide duin bat eman ahal izango zaie eta Ikastolaren balioak tinko mantenduko dira.

Beraz, Behatokiaren bitartez Ikastolako Elkarbizitza zuzen kudeatu eta osasungarri mantenduko dugulakoan gaude.

ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

Ikastolako eremu guztietako ordezkariak biltzen dituen topagunea da Behatokia, eta Orientazio Departamentuan gaudenontzat ezinbesteko gunea dela pentsatzen dugu. Izan ere, Ikastolak apustu egiten du bizikidetza proiektu baten alde eta beharrezkoa



Jantziko al gara?

ikusten dugu Ikastolako eremu guztietako ordezkariekin elkarlana bultzatzea eta proiektu hau bere osotasunean garatzea denon iritzi eta iradokizunak kontuan hartuta, Ikastola denok egiten baitugu

BIZIKIDETZA TALDEKO GURASOAK

Ikastolako komunitatea osatzen dugun partaide ezberdinen begiradak kontuan hartzeko eta jasotzeko bilgunea da guretzat Bizikidetza Behatokia. Ikastolako komunitateak modu bateratu eta koordinatu batean aritzea, ikasle, irakasle, profesional ezberdinek eta gurasoek elkarrekin lan egiteak duen interesaz jabetzea, garrantzitsua da guretzat. Interlokuzio harmoniatu batetik abiatuta, Ikastolan bizikidetza egoki baten alde lan egitea da gure asmoa. Eta, horretarako, komunitatea osatzen dugun partaideen zereginak eta ardurak ezberdinak direla kontuan hartuta, ulermenerako giroa sortzea ezinbestekoa da. Ez da berdina irakasle, ikasle, ikastolako profesional eta gurasoen ardura edo zeregina, baina funtsa elkarri entzutea eta entzunak izatea da, norabide guztietarako komunikazioa bultzatuz.

Ikastola hobetzeko, partaide ezberdinen konpromisoak garrantzia hartzen du talde honetan. Argi dugu sintonian lan egiten duen komunitate bateratu batek indarra hartu eta emaitzak sortzen dituela. Elkarrekiko konfiantza funtsezkoa da. Eta gure arazoak zein kezka, batzuetan ezberdinak izan daitezkeen arren, elkarren artean enpatiaz jokatzeko eta elkarlana bultzatzea da gure eginkizuna.

KiVa, Golden 5 edo Haziak proiektuak konpartitu, aztertu, sakondu eta komunitateko eremu ezberdinetara eraman. Geletan, gelakide, ikasle edo seme-alabengan giro ona, jokaera positiboak, balio egokiak, kohesioa eta gatazken erresoluziorako irtenbideak bultzatu, norberak bere eremutik, baina helburu berak oinarritzat hartuz.

Koordinazio eta kooperazio hau bultzatzeak ikasleak, seme-alabak, balio positiboetan bizitzen irakastea, pertsona kritikoak bihurtzea, haien konpetentziak bultzatzea eta haien adimen sozial zein emozionala indartzea du helburu. Horrek guztiak, errendimendu akademikoa hobetzeaz gain, baliabideak eskainiko dira bizitzan asebeteta senti daitezten.

Aldaketa ugari izaten ari dira Haurtzaro Ikastolan azken urteotan. Duela urte gutxi pentsaezinak ziren horrelakoak; paretarik gabeko gelak, non haurrak aukeratzen duten zer eta noiz ikasi, edukiaz gain beste gaitasun batzuk kontuan hartzen dituzten ebaluaketa modu berriak, irakasleak ikasleekin eta ikasleak beren artean erlazionatzeko era desberdinak, ikasmateriala euskarri digitalean...

Ugariak dira proiektuak, arrotzak egiten zaizkigu, eta sarritan siglaz betetako letra zopa baten aurrean jartzen gaituzte: EKI, GOLDEN 5, KIVA, IKT, IKASYS, KEI... Ezezagunak eta korapilatsuak iruditzen zaizkigun bezala, haiengandik urruntzeko joera naturalak gairitzen gaitu.

Oso garrantzitsua iruditzen zaigu gurasook aldaketa horien oinarriak ezagutzea. Zergatik egiten den horrela eta ez beste era batera. Gu prestatuta egotea ezinbestekoa da bide horretan lagun izan nahi badugu.

Jada izan dira ikasturte honetan gurasoon formakuntzarako arrakasta izan duten ekitaldi batzuk: M^a José Lera, EKI tailerra, Nerea Mendizabal... Aipatzekoa eta eskertzekoa da aldaketen berri emateko ikasketa buru eta zikloko koordinatzaileekin egindako bilera.

Guztion ardura da; ea denon artean duda, zalantza eta kezka horiek identifikatzeko gai garen eta ezagutza horretan lagunduko gaituen ikastaro, hitzaldi edo tailerrak antolatzen ditugun.

Gure seme-alabek asko eskertuko digute; jantz gaitezen.

Guraso talde bideratzailea





Laborategia, «Kuriositate Gunea»

2017ko udan Ikastolan gauzatuko zen Eraberritze Proiektu nagusiaren barruan zientzietako laborategia eta DBHko teknologia gelak fisikoki lekuz aldatu behar izan zirenez, haiek biak eraberritzeko aukera izan zen, eta aukera hori aprobetxatu genuen. 2016/2017 ikasturtean zehar, aipatutako bi espazio horien kokapen berriaz eta bien diseinuaz Teknologia eta Natur Zientzietako Departamentuko irakasleok eta arkitektoak elkarlanean gogotsu jardun ginen, eta lortutako emaitzarekin oso pozik gaude denok.

Egungo zientzietako didaktikan azpimarratzen diren oinarritzko printzipioen artean, ikasleon **kuriositatea elikatzearen** garrantzia azpimarratzen da etengabe. Laborategira sartu aurretik, ikasleak gogo biziz sartzeari erronka nagusitzat hartzen dugu, bertan berezkoa dugun kuriositate-maila areagotu dezaten.

Hau horrela izanik, laborategiko espazioa eta tresneria baino, norberak duen **galdera egokiak eta zuzenak asmatzeko gaitasuna** lantzen dugu, segidan, metodo zientifikoak markatzen dituen urratsen bidez, datuetan oinarritutako ondorioak atera eta haiek zientifikoki argudia ditzaten.

Hautzaro ikastolan dugun laborategi eraberritu honetan, aurten etapa guztietako ikasleak aritu dira lanean, HHTik hasi eta DBH 4. mailaraino ikergai diren esparru eta eremutako galderei erantzun asmoz. LHko mailetan egindako esperimenduak irakasleok gidatuak diren bezala, DBHko mailetan, ikasleei iniziatiba handiagoa uzten zaie, ikerketa beraiek gara dezaten.

Laborategiaren barruko diseinua lantzerakoan, EKI proiektuko metodologia hartu zen kontuan, talde-lanean aritzea, konkordantzia, ikaslea bere ikasketaren protagonista gisa. Baina hitzek baino gehiago irudiek erakusten dutenez...



Natur Zientzietako Departamentua



Teknologia gela berria


Laborategia bezala, Teknologia gela berritu behar genuela-eta, aurreko ikasturtean hasi ginen lanean. Hori dela eta, galdera egin genion geure buruari: nolako izan behar du Tailerrak?

Legeak begiratu, aukerak aztertu eta gela handi samarra behar genuela argi genuen. Gainera, espazioak integratzen dituen gela handi bat irudikatzen genuen, hainbat eremu zituen: «pentsatzeko eta diseinatzeko» eremua, TAILERRA (makinak eta erremintak), eta biltegia. Eremu aireztatua, lanerako atsegina... Bestalde, datozen erronkei aurre egiteko gela malgua behar genuen.

Bereziki DBHko ikasleek TEKNOLOGIA arloan proiektuak egiteko erabiltzen dute Teknologia gela. Etorkizuneko gaiak jorratu eta gure curriculumean integratzen joateko pausoak ematen hasiak gara Teknologia arloan: Ikastolen Elkarteko mintegietan parte hartuz eta ikastoletako irakasleekin batera ildo komuna markatuz, etorkizuneko gaiei erantzun beharko diegu (gure materialak gaurkotu, ekintzailetasuna bultzatu, koedukazioa, pentsamendu konputazionala landu, diseinu eta inpresio digitalerako eremuak garatu).

Ikasturte hasiera iritsi zen eta gure gela berria prest zegoen gutxi gorabehera. Horniketa egiten hasi eta lanean hasi ginen. Eta ikasleak pozik. Orain, lanean murgilduta gabiltza, taldeka proiektuak diseinatzen eta eraikitzen, talde lanaren gorabeherak bizitzen, lanen faseak modu egokian aurrera eramateko beharrezko tresna eta teknikak ikasten, eta egunero erronka berriei erantzuten: talde lanean, ekinez egiten, eraikitzen, probatzen, erratzen... baina sortzen zaizkigun arazoei momentuan erantzun eta soluzio berriak emateko ahaleginean, gozatzen. Gela atsegin, gozo eta txukuna daukagu orain. Eraberritzean parte hartu duten guztiei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen.

Teknologiako Departamentua





Garraio zerbitzua

Hautzaro Ikastolak bere sorreratik garraio zerbitzua izan du, eta Oiertzungo bailarak dituen ezaugarrietara moldatu behar izan du. Gogoraz ditzagun ezaugarri horiek:

- Oiertzungo bailarak zortzi auzo ditu.
- Bailarako erdiguneko auzoetako komunikazioa erraza baldin bada ere, beste auzoetako komunikazioa luzeagoa da: Karrika, Ergoien eta Gurutze auzora joatea, hain zuzen ere.
- Ikastolako eraikuntza bailararen erdialdean kokatu zen eta Ikastolak zerbitzu bera eskaini behar die auzo guztietako familiei.

Oinarritzko ezaugarri horiek kontuan hartuta bideratzen da Ikastolako garraio zerbitzua.

Ibilbideen antolaketa eta ordutegiak

Ibilbideak antolatzerakoan erabiltzaileen bizilekuen arabera egokitzen da zerbitzua. Aipatu behar da kontuan hartzen dela ere ibilbide bakoitzaren iraupena: 30 minutuko gehieneko iraupena lehenesten da. Bestalde, sarrerako ordutegiak garraio beharretara moldatu ziren eta errespetatzen da ibilbidearen zentzua zerbitzu guztietarako: Arraguatik hasten da zerbitzua, eta Altzibar-Karrikan bukatu.

Karrika, Ergoien eta Gurutzeko ikasleen zerbitzua gehienetan taxiaren bidez bideratzen da. Izan ere, autobusa baliatuz gero, ibilbidearen iraupena asko luzatuko litzateke.

Agenda 21 eta Xorrolaren ezarpena

Azken urteetan, Hautzaro Ikastolak inplikazio handia izan du Agenda 21eko proiektuan. Joan den ikasturtean (2016-2017) lortu zen Eskola Agenda 21 jasangarritasun aintzatespena. Garraio antolaketari dagokionez, azken ikasturteetan esperientzia bat bideratu da Oiertzungo Xorrola autobusarekin batera: DBHko garraio erabiltzaileek etxera bueltatzeko bidaia Xorrolarekin egiten dute eguerdian zein arratsaldean eta itzulerako bidaia edozein ordutan egin dezakete ikasleek.

Kuota sozialak

Garraio zerbitzuaren antolaketa hasi zenetik, 80ko hamarkadatik hain zuzen ere, kuota sozialaren irizpidea kontuan hartu da. Garraio antolaketak eragiten duen defizitaren % 70 bazkide guztien artean ordaintzen da eta erabiltzaileek gainerako % 30a ordaintzen dute. Irizpide honek aukera berdintasuna eman die Oiertzungo auzo guztietako familiei. Horretaz aparte, esan dezakegu gure komunitatean egoera guztiak integratzen direla Ikastolako beka sistemaren bidez.

Administrazioa

11. enpresen lasterketa HAURTZARO IKASTOLAKO LANGILEAK, ESKUTIK



Txinpart aldizkarirako artikulua eske etorri zitzaizkigunean, lasterketa hori egiteko, korrika egiteko, motibazio desberdinak eduki genitzakeela erantzun genuen hasiera batean. Lasterketa kudeatzeko (eta elkar animatzeko, girotzeko) dugun WhatsApp taldean eskaera komentatu genuenean, arrazoiak hain desberdinak ez zirela ikusirik, nahi zuenak hiruzpalau lerro idaztea proposatu zen. Ea esperimentu hau nola ateratzen den.

Maiatzaren 6an, Donostian, burutu zen lasterketa honetan enpresa bereko nahi adina laukote atera daitezke. 8,5 kilometroz korrika eginez Haurtzaro Ikastolako 20 langilek hartu genuen parte. Bost talde guztira. Zuetako askok, seguruenik, hainbat egunetan Oartzungo bideetan zehar korrika ikusi gaituzue, asteartean, ostiralean, igandean... eguerdian, arratsaldean... eguzkitan edo... euritan dantzan!

Baina, zerk bultzatu gaitu korrika egitera? Hona hemen zenbait partaidek esandakoak:

Agurtzane Zubizarreta:

Zergatik? Zertarako? Aske eta lasai sentitzen naizelako aritzen naiz korrika. Esfortzuaren ondoren sentitzen dudana «harrotasuna» oso

handia da. Eta hau guztia konpainian egitea, lankideen artean... gauza ederra da!

Patxi Lizarraga:

Zergatik? Zertarako? Inolako harrokeriarik gabeko zerbaitetik, harrotasunez erakutsi ahal izanen dugun zerbait izanen da hau. Hizketa batetik, pixkanaka-pixkanaka gero eta jende gehiago animatzen joan da eta 20tik gorako talde bat osatu dugu. Iruditzen zait gauza bat baino gehiago erakusten ari garela. Bina muxu guretzat!

Tamara Yaoska Sastre:

Zergatik korrika egin? Libre sentitzen naizelako, erritmoa nik markatzen dudalako, nire bihotz taupadak entzuten ditudalako eta etxera iristean egindako esfortzuaz harro sentitzen naizelako.

Maidier Olaizola:

Ikastolako pasilloetatik nindoala Xabi Salaberria topatu eta berak komentatu zidan enpresako lasterketan parte hartzeko



asmoa zegoela. Irakasleen zerrenda erakutsi zidanean jantokitik talde txoren bat atera genezakeela pentsatu nuen. Jantokian komentatu eta hortxe animatu ziren beste lau. Kristoren giroa sortu da. Orain lasterketan ikusi beharko zer moduz gauden, karkar-kar!

Xabi Salaberria:

Betidanik ibili izan naiz inguruokoak korrika egitera animatzen, badakidalako nik hainbeste maite dudan mundu hau ezagutzeak ondorio ederrak besterik ez dituela izaten. Animatu ditut lagunak, animatu ditut etxeokak, animatu ditut ikasleak... Baina oraingoa desberdina izan da. Elkarrekin animatu gara, eta helburua ez da soilik kirola egitea bera izan. Ikastolako langileak talde bat gara. Talde bat, ekipo bat. Eta esango nuke taldekako lasterketa honetan parte hartzeak gehiago izan duela taldekakotik, lasterketatik baino.

Kirolean, lagunartean, lanean... giroak eta talde lanak izugarritzko garrantzia dute, eta zalantzarik ez dut hau bezalako erronkek ere laguntzen dutela horretan. Helmugara iristearekin baino, bidearekin gozatu dut. Plazer bat izan da.

Josu Arotzena:

Bizikleta alde batera utzi behar izan nuenez eta igeriketak gehiegi erakartzen ez ninduenetz, inoiz pentsatuko ez nuena egiten hasi eta egiten jarraitu dut: korrika. Hasieran, erdi txantxa moduan hartu nuen baina, gustura sentitu naizen neurrian, serioago hartu dut. Kiloak galdu, eta bestean antzera libre sentitu, nire gorputzaren erritmoa nik markatu eta egindakoaz harro sentitu naiz. Bai eta konpainia ederraz disfrutatu ere. Lasterketa aurretik ia lankide guztiekin entrenatzeko aukera izan dut eta nola ez... bla, bla, bla... gehiegi estutu ez nautenean hitz eta pitz! Euri tanta artean gozatuz.

Lankideez ari naizela, ezin ahaztu Periko. Nire ikuspuntutik, eta beste guztiekiko errespetu osoz, eskolaz kanpoko filosofia ongien jaso duen kirola izan dugu atletismoa. Ikastolan jardun ditudan hainbat urtetan miretsi izan dut atletismo taldea. Batez ere berari esker ikasleen artean sortu izan den harreman guztia, mutil eta nesken artekoa, adin desberdinetako ikasleen arteko elkarbiziketa luze horiek guztiak... Zuetako askok badakizue zertaz ari naizen! Konplize izan zarete eta! Haren familiari eta hari egindako omenaldi xumea izan da gure lasterketa hau! Bejondeizula, Periko!

Partaideak





Ama-semeak literaturaz kontu- kontari

Aldurako ama-semeek, Lur Lopezek eta Idoia Frailek, literatura-sari bana jaso berri dute: lehenak, Azkue sarietako bat; eta bigarrenak, Julene Azpeitia saria. Aitzakia hau eskuetan, sarien ekarpenaz eta oro har literatur zaletasunaz gogoeta egiteko eskatu diegu. Hala, loratzen hasi berri den sagarrondoaren azpian, aurrez aurre eseri eta patxadan, kontu-kontari hasi dira, hosto artetik zelatan zituen kaskabeltzak, azkenerako beldurrak uxatu, eta habian zituen txikientzat janari bila itzuli-mitzulika jardun duen bitartean.

Amak semeari galde:

- Apirilaren 18an, Euskaltzaindiaren Billboko egoitzan, Haurtzaro ikastolako beste hiru lagunekin batera saria jaso berri duzu. Zer ekarri dizu sariak, Lur?

LUR: Hasieran, Maider gelara etorri eta berria eman zidanean, harrituta gelditu nintzen, ezin sinetsi. Gero, ordea, pixkanaka jabetuz joan nintzen eta poz handia hartu nuen, izugarria. Sariak irakurtzen jarraitzeko gogoak ekarri dit, dudarik gabe.

- Etxekook ere berria jakin genuenean, ondotxo dakizu zeinen pozik jarri ginen: aita-amak, aitona-amonak, anaiak... denak, jakina! Baina gogoan duzu zer esan genizun?

LUR: Bai, lehia oso arriskutsua dela eta saririk ederrena zerbaitetan saiatzea dela. Izan ere, askotan, lan onak eginagatik, saria bakar batzuk jasotzen dute; eta gainera, gerta daiteke poesia bat epaimahaiko bati asko gustatzea

eta beste bati ez horrenbeste. Zorteak ere bere tokia du. Horregatik, saririk lortzen ez dugunean, ez dugula etsi behar aipatu zenidaten.

- Gogoko duzu, Lur, sakelako telefonoa eskuetan hartu eta jolasean aritzea. Era berean, gogoz heltzen diozu liburu bat irakurtzeari. Zer ekarpen egiten dizu batak, eta zein besteak?

LUR: Biek entretenitzen naute, baina gehienetan ez ditut momentu berean aukeratzen. Ikastolatik buruko nekearekin etortzen naizenean, mugikorra lasaitzeko erabiltzen dut, esfortzurik ez didalako eskatzen. Burua argi dudanean, berriz, tarteka liburua hartzen dut: oporretan, asteburuetan eta bereziki, asko gustatzen zait aztoraturik nagoenean eta lo hartzeko zailtasunak ditudanean, liburu batekin ohera joatea. Baina garbi daukat liburu batekin hiztegia gehiago lantzen dela. Halere, gehiago irakurri beharko nuke.





- Etorkizunean, heldu izatera iristen zarenean, ikasketei dagokienez nora iritsi nahiko zenuke? Horretarako zein uste duzu dela zuk zerorrek eraiki beharreko bidea?

LUR: Handitzean matematikako irakasle izan nahiko nuke. Baina irakasle izateko badakit jakintza eta irudimen handia behar dela eta irakurtzeak horretan asko laguntzen du.

- Bestalde, gauza jakina da, gaur egun sekula baino liburu gehiago argitaratzen dela euskaraz, eta sekula baino marrazki teknika erakargarriagoz aurkezten zaizuela haur nahiz gazteei. Alabaina, zergatik da zure ustez hain zaila gaztetxo bat eskuetan liburua duela gozatzen ikustea? Zerbaitetan ez dugu asmatzen?

LUR: Gaur egun teknologia oso erakargarria da gazteontzat eta aukera handiak ditugu eskura: jokoak, musika, telebista... Elkarri bidaltzen dizkiogun mezuetan asko irakurtzen dugu, baina irakurketa hori ez da hiztegi aberatskoa.

- Zuretzat azken galdera, Lur. Gure seme-alabek gehiago irakurtzeko, gurasook zer egin dezakegula iruditzen zaizu? Burutaziorik bai? Era berean, zein aholku emango zenioke literatur zaletasuna bultzatzeko ahaleginetan buru-belarri diharduen irakasle horri?

LUR: Niri iruditzen zait astakeria bat dela mugikorra gaur egun hain haur txikiei ematea, jokoetan erraz engantxatzen direlako, edo garelako, eta ez gara benetako munduaz jabetzen. Ikusi izan dut LH 2. mailako haur bat telefonoarekin. Zer da hori? Gurasoak ez dira konturatzen? Gurasoek txikitatik haurrei ohitura onak erakutsi behar dizkiete: liburutegira joan, ipuinak kontatu... Nik, adibidez, liburutegia asko erabili dut eta ni bezala jende mordoxka ikusten nuen han. Izan ere, herritik urrun dagoen baserri batean bizi garenez, eta nire anaiekin batera etxeratu beharra nuenez, denbora tarteak betetzeko liburutegia erabili izan dut. Baina orain, handitzen noan neurrian, gehiago kostatzen zait hori egitea, eta orain irakurtzen jartzea ere gero eta zailago egiten zait. Ez dakit zergatik den. Irakasle bati, berriz, ez dakit zein aholku emango niokeen: lehen LHn batzuetan oporretan irakurtzeko liburuak ematen zizkiguten, baina horrela ongi pasatzea ez zen erraza.

Semea amari galdezka:

- .Betidanik izan duzu ipuinak idazteko afizioa?

IDOIA: Bai, txikitan hiru senide ginen eta hirurok betidanik izan dugu literatura irakurri eta idazteko joera, laugarren senidea hamahiru urte geroago iritsi baitzen gurera. Ongi gogoan dut, hiruzpalau urte genituela, Oikiako amonak otorduak azkarrago bukatzeko Traperoren istorioak nola kontatzen zizkigun. Eta guk, amonaren hitzak entzun ahala, konturaterako platerekoa dena ziplo egiten genuen. Begien bistan daukat oraindik, Erreterriako ikastolan 3. mailan andereño Arantxa Perezekin

ginela, nola esan zigun Trapero Euskal Herriko ipuinetako fikziozko pertsonaia bat zela, baina baserrietako sukaldeetan egiantzeko bihurtzen zela gaineratu zigun, gertaeretan herriko pertsonaia errealekin tartekatzen zutelako. Nik bederatzi urte banituen, neska kozkorra, beraz, baina ederki asko gogoratzen naiz nola eskua altxatu nuen esateko, gure amonak kontatzen zizkigun istorioak ez zirela noski asmatuak, denak egiak baizik. Pentsa zenbateraino bizitzen genituen! Amona Manuela ipuin-kontalari aparta genuen. Ipuingintzarako afizioa, beraz, neurri batean amonari zor diogu; etxeko amonari, eta gurasoei ere bai, jakina. Non ez ginen harpidedun? Etxean telebistarik ez genuen eta euskaraz argitaratzen zen ia dena erosten ziguten. Abenduan Durangoko azokara joatea festa handi bat zen hiru senideentzat.

- Nolatan animatu zara berriro idaztera?


IDOIA: Bada, usterik gutxienean hartu nuen erabakia. Hara non, semeetako guraso bilera orokorrean otu ez zitzaidan ba! Iazko urte bukaeran gertatu zen hori. Ertaina den semeak DBH bukatu eta ikastola agurtu behar zuenez, tutore izandako Kristina Boaneri gurasook idatzi bat prestatu genion opari. Han bildutako denek une gozo bezain zirraragarriak bizitu genituen eta irakasleak izugarri eskertu zuen. Orduan zin egin nion neure buruari, gaztetan egiten nuen bezala, udako oporretan atzera ipuin bat idatzi beharra nuela. Esan eta egin. Hala, sortutako ipuina emakume beratarrari eskaini nion. Gero, ustekabean iritsi zen sariarena. Sariak, alabaina, idazten jarraitzeko gogo handia sorrarazi dit.

- Beti etxean lanean ikusten zaitut, ama. Nondik ateratzen duzu idazteko denbora?

IDOIA: Egiten dudan apurra oporretan egiten dut edo, bestela, loari tarteak kenduta. Saritutako Erreka bila ipuina, esaterako, Xanixtebanetan hasi nintzen idazten. Herritik at Alduran bizi garenez, eta zuek hirurok goizaldera jasotzeko erotzeko moduko ordutegia nuenez, esna egoteko modurik aproposena idazteari lotzea zela iruditu zitzaidan. Festak, beraz, oso modu berezian ospatu nituen.

- Pozik zaude lortutako sariarekin?

IDOIA: Bai, oso pozik, ipuina argitaratu egin dute eta sari handia da niretzat hori; izan ere, irakurle bakar batzuekin harreman berezia lortu dut, nik orain arte ezagutzen ez nuen konplizitate moduko bat. Inork irakurri nahiko balu gure herriko liburutegian bada ale bat. Baina, dudarik gabe, saririk ederrena ereindako hazia zuengan loratzen ikustea da.





URMENDI HAUR ESKOLA

Joanatik Johanara, eta buelta!

Kuku, ttiki!

A ze sorgina egina zauden! Zoragarria da egunetik egunera deskubritzen eta egiten dituzun gauza berriei jabetzea eta gozatzea. Johanarekin, Haur Eskolako zure andereño kuttunarekin batera idazten dugun eguneroko honetan jasotzen eta partekatzen ditugu zure aurkikuntzak, ematen dituzun pausoak, esaten dituzun hitz berriak, zure gorabehera emozionalak, etab.

Zorionez, Haur Eskolara eramaten zaitugunean, normalean, izaten dugu aukera zuri buruz bi hitz egiteko, baina eguneroko koadernoan ñabardura gehiago egon daitezke eta oso egokia da jarraipena egiteko.

Aitortzen dizut, batzuetan, kosta egiten zaidala koaderno aurrean jartzea, baina pasatzen ditugun une goxoak idatzita geratuko direla jakiteak sortzen didan pozak animatu egiten nau. Gainera, nik zurea soilik idazten dut, baina Johanak zure gelakide bakoitzarena idazten du, egunero-egunero. Berea bai, meritua! Altxor ederra izango duzu irakurtzen ikasten duzunean!

Aste hauetan, pixoihala kentzeko lehen pauso esanguratsuak ematen ari zara. Etxean gaudenean, “pixa-pixa!” esan eta eskutxoak pixoihalera eramanez, kentzeko esaten diguzu. Traba egiten dizula! Jarraian, pixontzian eseri, segundo gutxira zutitu eta “pixa, pixa!!!” seinalatu eta saltoka hasten zara, pozarren. A ze lorpena, e, ttiki!

Asteburuan eguraldi ona egin duela baliatuz, hondartzara joan eta aurtengo lehen bainua hartu dugu. Hondartza ez da berria zuretzat, baina iruditzen zait, hainbeste hilabetez joan gabe egon ostean, berriz deskubritzea bezala izan dela. Pupu eta Loreren ipuinean bezala, hondarreko putzutxoetan plisti-plasta, olatuekin harrapaketan, kroketa egiten... asko gozatu duzu, eta guk ere bai!

Gaur astelehena da eta, ohi denez, alfer pixka batekin zoaz Haur Eskolara. Gelara iritsita, nire edo aitaren besoetan egon nahi izaten duzu pixka bat egokitzeke, baina Johanak bere besoak luzatzen dizkizunean, irribarre txiki bat ateratzen zaizu ezpainetan eta lasai geratzen zarela iruditzen zait. Gainera, seguru Johanak ipuin politen bat irakurri eta jarduera dibertigarriren bat prestatu duela zuentzat. Ez al da horrela, Johana?

Therese
Aina

Kaixo, politt hori!



Hementxe naiz berriro ere kontu-kontari! Amatzok dioen bezala, koadernotxo honetan jasotzen ditugu zure bizipen guztiak, bai Haur Eskolakoak, bai etxeakoak! Bion artean familia handi bat osatzen dugu eta benetan lagungarria izaten da zure egunerokoa nola doan jakitea; detaileak, emozioak, otorduak, loa, ezinegonak, haserreak, pozak... dena dugu jakin-min, dena jakin nahi! Informazio oso lagungarria aurkitzen dugu bertan zurekin emango ditugun orduetan nola egon zaitezkeen aurreikusteko. Benetan eskertzen da etxeakoek ere egiten duten esfortzua. Aupa zuek!

Egurdiko tartetxoa izaten dut idazteko. Gogoz hartzen duzue siesta garaia, goizeko martxa eta otorduen ondoren; beraz, aurten lasai idazteko aukera izaten dut. Momentu berezia izaten da, goizeko gurasoen agurretik hasi eta goizean zehar nola egon zaren baloratzeko, hausnartzeko eta aztertzekeo tartea edo unea izaten da, ni eta zure arteko momentutxoa bezala!

Gaur, astelehena, giro petrala zen kanpoan eta lasai arraio igaro dugu goiza gelan. Lagun guztiak iritsi direnean, bata bestearen ondoan elkartu eta gosari txiki bat egin ostean, asteburuaz hitz egin dugu. Amatzok esana zidan hondartzan ibiliak zinetela eta zuri aipatu orduko hortxe hasi zara, hankak gora zilipurdika eta zure hizkuntzan, zure modura kontutxoak esanez, emozioz bizitakoa kontatzen, ahotik irribarrea ezin kendu! Kar-kar-kar...

Ipuintxo pare bat ikusi ditugu ondoren eta Txomin komunean kontatu dizuet. Kontakizun guztian kieto egon zara, adi-adi Txominen komunerako bueltak entzuten! Ipuin bat bestearen atzetik ikusten igaroko zenuke zuk goiza! Oso gustuko dituzu, ttiki!

Ondoren, jolas librean ibili zarete, bakoitzak nahi eta behar zuenarekin eta zoragarria izan da zuek jolasean ikustea, behatzea. Panpinen txokoan, sukaldean eta gaur, lehen aldiz, txirristara igotzen ikusi zaitut! Aupa, txapelduna! Maldatik jaitsi beharrean, berriro ere eskaileretatik egin duzu buelta....politik-poliki, ezta, politta?

Berehala etorri zaigu Ane sukaldaria bazkari goxoarekin eta lagunartean mahai giro ederra izan dugu. Purea, hanburgesa eta platanoa jan dituzu, gustura, gainera. Betidanik izan zara oso fina jaterako orduan, eta primeran moldatu izan zara koilararekin, bakarrik jateko gaitasuna baduzu eta kasik zikindu ere egin gabe! Txukun-txukun!

Gaur bazkarian, ondoan zeneukan lagun bat adurzapia airean astintzen hasi da eta, emango zizulakoan-edo, zu ez zara seguru sentitu. Gogotsu eta energiaz hasi zara “mina ez!” esanaz.... Horixe baietz, ongi esana!

Tripatxoa ongi beteta, azken bolada luzean bezala, ordua hartua daukazu eta kaka ederra egin duzu. “Zeinek egin du kaka?” galdetu dut eta salto batean etorri zara nigana, “kaka!” “kaka!” esanez, fardela ipurdi aldetik ukituz, irribarre eder batekin! Kar-kar-kar!

Lotarako koltxoak atera orduko bertan eseri eta zapatilak kentzeari ekin diozu gogotsu. Loak hartu aurretik lagunekin juerga pixka bat (momentu politt eta goxoak izaten dira hauek) eta, behin tapatu zaitudala, bi minutu ere ez dira pasatu loak hartu zaituenerako.

Ondo lo egin, preziosa! MUXU!

Joana Mendiburu, Urmendi Haur Eskolako ama
Johana Barriola, Urmendi Haur Eskolako hezitzailea



Ikastola Eguna





Urmendi Eguna





HAUR HEZKUNTZA 1

Jan, jan eta jan!



ASTE SANTUKO OPORREN BUELTAN JANARIEN MUNDUAN MURGILDUTA IBILI GINEN:

- JANARIAK EZAGUTZEN ETA SAILKATZEN
- MAZEDONIA GOXO-GOXOA PRESTATU ETA DASTATZEN
- ESKULANAK EGITEN

ETA GAIARI BUKAERA EMATEKO, ERRENTERRIAKO AZOKA EZAGUTU GENUEN ETA BERTAKO SALTZAILEEK GAUZA ASKO ERAKUTSI ZIZKIGUTEN. OSO JATORRAK IZAN ZIREN!



EGURALDI ONA APROBETXATUZ, HAMAIKETAKOA PARKE POLIT BATEAN EGITEKO AUKERA ERE IZAN GENUEN.



Eduardo Txillida ezagutzen

EDUARDO TXILLIDA ESKULTOREAREN OBRAK MUNDU
GUZTIAN EZAGUTZEN DIRA, ALEMANIAN, NEW YORKEN...

BAINA HAIETAKO EZAGUNENETARIKO BAT
DONOSTIAN DAGO: HAIZEAREN ORRAZIA.

IKASTOLAN HAREN BIOGRAFIA EZAGUTU DUGU. ERABILI
IZAN ZITUEN MATERIAL DESBERDINEZ EGINDAKO
ARTELANAK IKUSI DITUGU.

AZKENIK, DONOSTIARA JOAN AURRETIK ,
ESKULTURA HAU NON DAGOEN, NOLA JARRI ZEN,
IZENBURUAREN ZERGATIA LANDU ONDOREN,
HH2koak BERTAN IZAN GINEN.






Etxeak nola egiten dira?

ETXEAK NOLA EGITEN DIRA?

DIARTZUNEN DAUDE ETXEAK IKUZI DITUGU
ETA BERAIEK ARTEKO ERBERDINTAZUNEK
ERREPARATU GARA: ARRAGUAKO
DORREAK, BAZERRIAK, ETAB.

ETXEAK NOLA EGITEN
DIREN ERE IKASI DUGU ETA
ONDOREN LANAEK HASI GARA
ETXEAREN PLANOA EBIN DUGU
ERATIKI, AFATINDU...
BEGIRA ZEIN POLITAK
GERATU DIREN!!!





LEHEN HEZKUNTZA 1

Euskal Herritik Greziara



GUETION ARTEAN EUSKAL
OLIMPIADAK EGIN GEDITUEN OSO ONGI
PASA GENUEMETA DENOK IRABAZI GENUEN. DIPLOMA
ETA ERAMUZEKO KORDA ERAMAN GEDITUEN
GUREKIN, GREZ-IARRAK BEZALA.

NEKTARIA GREZ-IARRA DA. IKASDOLARA
ETORRI ZENBERE HERRIARI
BURUZ HIZ EGITEA. HAINGAT HIZ
IRAKATSI ZIKEN GUREN HEZKUNTZAN,
ALFABETUA ETA DANTZAK! OSO ONE
ATSEGINA PASA GENUEN.





KALIMERA! EHUNON DA GREZIERAT
 NERTARIA GREZIAKOA DA ETA GUREGARA
 EMRIZEN. TXIKI ZURIA ERANTZU!
 GENIONEK ARRTUTA GELITUZEN ASKO GUSTATU
 ZITZAION!
 BERAK GREZIAKO GAUZAK KONTATUZ

GUK GREZIAKO ERAIKINGARRAN
 TZITSUAK EGINDITUGU ETA ATENASE
 KO AKROPOLIA OSATU DUGU.
 AKROPOLIAKO TENPLUAK JAINKO ETA
 JAINKOSENTZAT EGINDIEN ETA
 PARTA OIA IZAN ZEN HANDIENA
 ETA DOTOREA.



Gurekin Igel Marroitxo



Haziak proiektuan Igel Marroitxo dugu bidelagun.
Berarekin oporretara joan gara eta a ze abenturak izan ditugun!





Ainhoa Larrañagarekin (Eli) elkarrizketa

LH 2koak irratsaioa prestatzen ari ginela, Goazen telesaileko Eli pertsonaiaren papera egiten duen aktorearekin elkarrizketa antolatu eta egiteko aukera izan dugu.

Primeran pasatu genuen, eta, irratsaioa entzuteko aukera ez duzuenek guk gozatu genuena goza dezazuen, idaztea erabaki dugu.

GOZATU!

A zer zortea dugun! Gurekin dugu gure telesail kuttuneko pertsonaia bat, askok izan nahiko genukeen neska.

Ainhoa, zure pertsonaiak denetarik egiten du: dantzatu, antzeztu, abestu... Ainhoa edo nahiago duzu Eli deitzea?

Nahiago dut Ainhoa deitzea.

Goazenen egiten dituzun gauzetatik zein da gehien gustatzen zaizuna?

Asko gustatzen zait besteak gaizki uztea eta hau, arrazoia edukitzeagatik. Nikole gaizki uztea, baita nire lagunak ere, eta pertsonaiak arrazoia edukitzen du normalean.

Txikia zinenean zer izan nahi zenuen?

Ea! Txikiagoa nintzenean kazetaria edo Eroskiko arraina zuritzen

duen pertsona izan nahi nuen. Benetan ez nuen espero aktuaioa eta interpretazioa gustatuko zitzaidanik. Ez nekien.

Noiz hasi zinen antzerkigintza ikasten?

Ez dut inoiz ikasi antzerkigintza. Goazenen casting-eant hartu ninduten eta hor hasi nintzen ikasten.

Ongi pasatzen duzu antzezten, nola sentitzen zara?

Oso ondo pasatzen dut antzezten, asko gustatzen zait beste pertsona bat izango banintz bezala erreakzionatzea eta orain probatu dudan zerbait da. Hau da gustatzen zaidana, bete egiten bainau. Hau honela sentitzen dut zure zatitxo bat ematen duzulako, fikziozko beste pertsona horren zati zarelako. Asko gustatzen zait!

Noiz hasi zinen Goazen telesaioan?

2016an hasi nintzen.



Zergatik joan zinen Goazen telesaileko casting-era?

Berez ez nuen intentziorik. Kantu Giron egon nintzen. Badakizue zer den Kantu Giro? Ba bertan egon nintzen, eta lagunek esan zidaten: «Aizu! Zu Ainhoa pixka bat lotsagabea zarenez, telebistan egon zarenez telebistan, zergatik ez zara apuntatzen?»

Nik esan nien: «Amari galdetuko diot lehendabizi», eta amak ez zidan utzi, ez zidan uzten. Eta behin eta berriz esan nion probatzeko zela, ez nindutela hartuko. Ez nuen espero, eta PUM! Hartu egin ninduten!

Nola grabatzen da Goazen telesaileko kapitulu bat?

Dena desordenatua grabatzen da. Ez da grabatzen kapitulu oso bat aste batean. Hau da, agian egun batean Nikolerekin bronka grabatzen dut eta, gero, ordubete geroago, aske maite dut. Ulertzen? Zatika grabatzen da eta ez jarraian. Grabaketa goizeko zazpietatik arratsaldeko zortziak arte izaten da. Kamera bat daukazu zuri begira, mikrofono bat hemen, beste bat hor, eta, noski, ez da erraza.

Zer egiten duzu zure pertsonaiaren sentimenduak?

Ea, utzi pentsatzen. Zer egiten dudan? Baaaa, haren egoeran jartzen naiz pixka bat, eta hark egoera hori nola hartuko lukeen pentsatzen dut. Badakigu Eli gogorra dela, ez duela bere sentimendurik erakutsi nahi ia inoiz. Beraz, haren modura pentsatu behar dut, eta hura izango banintz bezala. Baina nik nola sentituko nukeen ere kontuan hartzen dut.

Zu eta Eli berdinak zarete? Nola lantzen duzu zure pertsonaia?

Oso antzekoak gara. Oso-oso antzekoak. Elik pentsatzen duena nik ere pentsatzen dut. Berak esaten dituen gauzak niri ondo iruditzen zaizkit. Ez da Nikoleren papera egin beharko banu bezala, oso desberdinak garelako, baina oso identifikatua sentitzen naiz.

Nola lantzen dituzu pertsonaiak?

Nola lantzen ditudan? Egia esan ez dut nik bakarrik lantzen. Askotan ez dakizkit gauza batzuk nola hartu behar dituen Elik, eta pertsona bat daukat ondoan, egoeretan sartzen laguntzeko. Pertsona hori Ainhoa Ayerbe da, aktore guztiei laguntzen diguna gure pertsonaia aurkitzen eta hura gabe ez nuke Eli berdin hartuko. Udararen egon zen garai bat galdu nintzena pixka bat, maitasuna agertu zenean Elirentzat. Garirekin ez nekien guztiz nola hartu eta, azkenean, Ainhoak esandakoa egin nuen, haren tokian jarri eta egin.

Zer egiten ari zara orain?

Orain Bagoaz-en nago. Goazen grabatzen hasiko gara berrir. Nire kantak konposatzen eta grabatzen ere hasi naiz. Ea saltzen diren edo... olatu honekin «karrerilla» hartu eta aurrera egiteko.

Zein pertsonaia antzeztu nahi zenuke?

Edozein pertsonaia. Ez dut inoiz pentsatu. Agian Alizia lurreko miresgarriko Erregina gorria. Gaiztoen paperak gustatzen zaizkit, disfrutatzeko.

Eta hemen bukatu genuen gure elkarrizketa.

MILA ESKER, AINHOA-ELI!

LEHEN HEZKUNTZA 3

Esperimentu festa

Txanelako 5. unitatean («Firinfaan airea dantzan») esperimentuak egin ditugu. Esperimentuak metodo zientifikoari jarraituz gauzatu ditugu. Behaketatik, galderak sortu zaizkigu, haien inguruko hipotesiak bota, jarraian esperimentatu eta ondorioak atera ditugu. Ondorio horiek galdera berriak sorrarazi dizkigute.

Proiektua gela laborategi bihurtzea, laborategi aholkuak eta ekipo lana izan bada ere, denok Ikastolako laborategian esperimentu bat egin dugu. Bukaeran, berriz, Amaia Iriondo eta Ibon Mitxelena gurasoekin «esperimentu festa» egin dugu laborategian. 6 esperimentu antolatu zituzten eta denok izan genuen denak probatzeko aukera.

1. Esperimentua: arrautza botila barrura sartzen lortzea.
2. Esperimentua: inbutuekin kandelak itzaltzea.
3. Puxika botila barruan putz daiteke?
4. Papera eta orratzekin, papera mugi daiteke?
5. Inbutuei putz eginez ping-pong pilotak mugi daitezke?
6. Bakoitzaren biriken gaitasuna neurtzea (capacidad pulmonar)



Arratsalde ederra pasatu genuen!

Erramun Martiarena Sarasolak (besteak beste, Ikastolen Elkartekoak) streaming saioan guk egindako esperientzaren aipamena egin zuen Scientix Ambassador Scientix, European Schoolnet, #STEMDiscoveryWeek europar ekimenean.

Eskerrik asko, Amaia eta Ibon.

LH 3ko ikasle eta irakasleak



LEHEN HEZKUNTZA 4

Izan zirelako gara, garelako izango dira!

Txanelako azken proiektuan murgilduta egon gara ikasturteko azken txanpan.

Gaia **ugalketa** denez, **landareen** ugalketa sexuala eta asexuala LH 1 mailakoei aurkeztu diegu infogramak erabiliz. Lehenik, talde lanean ikasitakoa laburtu dugu eta teknika desberdinak erabiliz kartulinak prestatu ditugu. Ondoren, 1. mailakoei nola azaldu entseiatu dugu.

Animalien ugalketa dela eta, Ikastolako guraso eta Aztiko langile den Inmaren bisita izan dugu. Hark, antxoen ugalketa azaltzeaz gain, arrak eta emeak nola bereizi erakutsi digu barruko organoak behatuz. Mikroskopioa ere ekarri du eta arrautzaren faseak ikusteko aukera izan dugu.

Zeinen interesgarria izan den!





Los-as alumnos-as de 5.º de Primaria hemos realizado un pequeño análisis de nuestra alimentación, la publicidad que nos bombardea diariamente en torno a este tema, etc.

Para ello, durante una semana, hemos ido anotando en una tabla toda la ingesta de alimentos. De esta manera hemos podido compararla con la que los médicos aconsejan para nuestra edad. Así, cada uno de nosotros ha elaborado su propia pirámide y la ha analizado.

Aquí tenéis dos ejemplos:

1.- Yo como bien los cereales, las verduras y ensaladas, el pescado y las chucherías. Y tendré que mejorar en comer más fruta, frutos secos, legumbres, productos lácteos, huevos y aceite de oliva. Debería comer menos carne y embutidos.



2.- Yo he descubierto que como bien los cereales, las verduras, los huevos, el aceite de oliva y las chucherías. Tengo que mejorar comiendo más fruta, productos lácteos, legumbres y pescado. También tengo que comer menos carne.

Elurra eta gu

Elurra ez da eguneroko ogia, ez da eguneroko euria, ez eta eguneroko egunerokoa ere. Elurra naturaren zati da, euskal ohituren bidelagun eta gure bizipenen zurtasun.

Gorputz Hezkuntzako 2. unitateari «Elurra» deitu eta lanketa aberatsa egin dugu guztion artean. Norberaren behar eta nahiak ardatz hartuta egin dugu aurrera eta besteekin erlazionatzeak dituen ertzak gozatzerara ere iritsi gara. Unitate osoan zehar, elur testuinguru bat irudikatu eta jaurtiketa, orientazioa, oreka, irristaketa, desplazamendua, zentzumenak eta hotz-bero sentipenak esperimendu ditugu.

Unitate amaieran, eguraldiarekin hitzarmena egin izan bagenu bezala, ikastolan bertan elurtea egin zuen. Beraz, espezial!

Hori gutxi balitz, Etxarri-Larraunera egindako irteeran, oihal zuriz estalitako mendietan barrena ibiltzeko aukera izan genuen. Bertan, aurretik geureganatutako kontzeptu eta gaitasunez zipriztindu eta ederki itxi genuen elur aroa.

Gora elurraaa!



Scary Stories

In the third unit of EKI we are working on SPOOKY STORIES, so we have made up some short, although scary ones. Here you are some examples. We wish you a **scary reading!**

SCARY STORIES

Noa was alone at home. It was a stormy night. She was reading on the bed when the light went off. Just at that moment, Noa heard a noise, like a door opening. She took the torch and she went downstairs. When Noa arrived to the kitchen, suddenly she heard another noise... "Miaow!"

Inge Mitxelena, 6A

I looked to my garden and I saw my grandma. My grandma died two years ago.

Eneko Arozena, 6A

I was in my house alone. I was watching the TV, a film of killer clowns, when the TV switched off and a killer clown of a film got out of the TV.

Aroa Mitxelena, 6B

There was a man sleeping. Suddenly, he heard a child voice under his bed, saying: "Daddy, daddy!" he was afraid. He lived alone.

Igor Hevia, 6B

Hello I am John, I am nine years old and I live in Canada. Last week, when I was doing my homework in my bedroom, my sister came (She is Mary, she is two years old). She was scared and she said:

- I heard noises in the attic.

We went up to the attic, but we did not see anything and we went downstairs.

Yesterday, my sister was ill and my partner took her to hospital. So I was alone at home. I heard noises. I took a flashlight and I went up. When I opened the door, there was silence and there was a rat. I thought that the rat made the noises.

WHAT DO YOU THINK?

Harriet Otaegi, 6C

One night, one girl was in her house at 01:00 am. She went to the terrace and looked at the park that it was in front of her house. She saw that the swing was moving alone. She was very scared because she did not have any idea why it was moving. She cleaned her eyes and saw that the swing was not moving, but she saw that the door of her terrace closed. Suddenly, she looked at the house and she shouted. From that moment on, nobody knew anything else about her.

Izaro Zapirain, 6C

One morning Sharon woke up in her bed and saw a strange thing, she freaked out and started to yell and hit it. She woke up again and Sharon thought that the monster was a dream, but then she heard, "I'm back".

Peru Marin, 6D

I was tidying up my clothes, when I felt somebody into the wardrobe. I told my mum and when she went to have a look, she said:

- There is nothing there!

The next day my mum heard a sound and she went to see. I went to see my mum and when I arrived, my mum was killed on the floor.

Aiora Mata, 6D

Zergatik ez banatu





2010ean UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO Zentroak «Eman minutu 1 / Dame 1 minuto de...» ikus-entzunezko lanen lehiaketa jarri zuen martxan. Haren helburua da mundu mailan giza eskubideekin zerikusia duten arazoei buruz gizartea sentiberatzea eta kontzientzia zabaltzea. Guztiak berdinak gara eta eskubide eta betebeharrak berberak ditugula aldarrikatzen du lehiaketak eta denok defendatu behar ditugula pertsona guztien eskubideak.

Urtero gai desberdin bat erabakitzen dute minutu bateko bideoa egiteko; adibidez, aterperik ez duten pertsonak ikusaraztea, hezkuntza berdintasuna lortzea... eta aurkeztu diren lan guztien artean giza eskubideak ongien defendatu, bultzatu, aldarrikatu, zabaltu eta kontzientziatzen dutenek irabazten dute.

Duela bi urte Haurtzaro Ikastolako DBH 1eko Etikako ikasleak Unesco etxeak antolatutako lehiaketa horretan parte hartzen hasi ziren eta aurten ere parte hartu dugu eta bertan aurkeztutako **Zergatik ez banatu** bideo laburrekin Eusko Ikaskuntza saria irabazi genuen DBH 1C gelako Anje Irastorza, Uxue Etxebeste, Ane Garmendia, Iker Ubiria eta Fermin Seinek.

Bilbora joan ginen garaikurra jasotzera eta eszenatokian hitz batzuk esateko aukera ere izan genuen. Oso esperientzia interesgarria eta aberasgarria izan zen.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Iñaki Lertxundi eta Ariane Retegiri bideoa egiten laguntzeagatik. Gorabehera batzuk izan genituen, baina elkarlanean zailtasun guztiak gainditu eta oso lan txukuna egin genuen denon artean. Oso gustura gaude lortutako emaitzarekin eta datorren ikasturtean ere parte hartzeko asmoa dugu, kulturartekotasuna gaiarekin.



DBH 2

Sur les traces du passé



DBH 2. mailako frantseseko ikasleek Cro-Magnon gizakiaren kobazuloetako horma artea izan dute ikergai. Marcel Ravidat gaztearen pausoei jarraituz, Lascauxeko leizearen aurkikuntzaren berri izan ondoren, Pirinioen alde bietan, han-hemenka sakabanatuta dauden kobak ikertzeari ekin diote.

Ikasleek labarretako artean nagusi diren koloreak, teknikak eta materialak landu dituzte, gero, bertako artelanak imitatuz eta eskura ditugun egungo materialekin erreplikak egiteko. Beren kobazuloa margotu dute eta txukun aritu dira, bai jauna!





DBH 3

EKOFISH proiektua


Aurtengo DBH 3. mailako ikasleek MATER Museoak sortu eta garatutako EKOFISH proiektuko kanpainan parte hartzeko gonbita jaso eta parte hartu dute. Denok jakin badakigu, XX. mendean ikerlariek «konposatu plastikoak» sintetizatu zituztenetik egun arte, gure gizartean plastikoz inguratuak gaudela eta haien guztien kudeaketaz sakonki hausnartu beharra dugula.

Testuinguru honetan, EKOFISH kanpaina MATER Museoak proposatutakoa da. Aipatutako kanpaina bi fasetan banatu genuen; «lehorreko fasea» deituriko lehenengoan, museoko adituen laguntzarekin ikastolan bertan, plastikoen kontsumoa eta gure itsasoetan haren erabileraren ondorioak aztertu eta ordezeko aukerak bilatu genituen. Fase honen amaieran, ikasgeletatik atera eta Oiartzun ibaiaren bokalean, Pasaian kokatuta dagoen Alabortzako hondartza garbitzera joan ginen. Honela, ikasleak sakontasunean hurbildu ziren itsas zaborren arazora beren ingurune hurbilean, hango zaborra karakterizatzeko eta biltzeko.


«Itsasoko fasea» izeneko bigarren fasean, MATER ontzi museoan nabigatzera joan eta hiru egun ezberdinetan, gelaka, ikasleak tripulazioaren parte-hartzaile aktiboak bilakatu eta talde dinamiken bidez rol desberdinak garatuz hondakinen arrantzaren inguruan murgildu ziren: behaketa eta inguruneko datuen bilketa, salabardo, txamarta eta sareen bidezko arrantza aktiboa eta arrantzatutako zaborraren karakterizazioa eginez.

Euskal Herriko klimatologia ezagutuz, eguraldiak itsasoa harrotu eta olatuek eragin zezaketen arriskua ekiditeko, itsaso txarra zelako, aipaturiko bi egunetan, beste dinamika desberdin bat burutu behar izan genuen; hau da, itsasoko kutsaduraren zaintzan, arazoaren difusioan eta ikerkuntzan zentratutako ekintza desberdinekin: uraren analisia, biodibertsitatearen ikerketa eta plastikoen bilaketan bideratutako jarduerekin.

EKOFISH proiektu honen bidez, gure eguneroko hainbat ohiturak eta jarduerak ingurumenean, eta itsasoan kasu honetan, eragindako kalteez jabetu, hausnartu eta jokabide horiekiko konpromiso proaktibo sendoak hartzeko aukera paregabea eskaini zigun.



Euskal Herriko Slalom Txapelketa Oartzunen



Haurtzaro Atletismo Taldeak eta Euskadiko Kirol Egokituko Federazioak antolatu zuten Euskal Herriko Slalom Txapelketa Oiartzunen, martxoaren 24an Elorsoro kiroldegian. Slaloma kalte funtzionalen bat daukaten kirolariei zuzenduta dago, eta garun paralisia edo burmuineko kaltea duten pertsonak egiten dute gurgildun aulkian. Kronometratutako proba da eta hainbat trebezia praktikan jartzen laguntzen du; adibidez, birak, abiadak, zehaztasuna eta trebetasuna.

Slaloma hainbat zirkuituz osaturiko kirol bat da eta ahalik eta denbora gutxienean egitea da helburua, baina bertako arauak ongi betez. Zirkuitu bakoitzean akatsen bat eginez gero, puntuak kenduz penalizatzen da. Adibidez, piboteak lurrera botatzen diren bakoitzeko 5 segundo kentzen dira; lurrian markatutako marrak zapaldu edo pibotea bota gabe ukituz gero, 3 segundoko penalizazioa dago. Ariketa gaizki egiten baldin bada, kanpoan uzten da partaidea.

Hiru urte daramatzat kirol hau praktikatzen. Haurtzaro Ikastolako Atletismo Taldean hasi nintzen slalomarekin harremana izaten. Urte hauetan zehar, hainbat txapelketatan hartu dut parte, baina nire herrian antolatzen direnean urduri jartzen naiz. Txapelketak Gipuzkoan izateaz gain, beste probintzia batzuetan ere antolatzen dira; adibidez, Bartzelonan. Bertan, Espainiako txapelketan parte hartu nuen.

Larunbatean, Oiarzungo kiroldegian txapelketa nuelako oso urduri nengoen. Probak primeran egin nituen. Txapelketa amaitzean, nire hainbat lagun ni ikustera eta animatzera etorri zirela konturatu nintzenean, izugarri poztu nintzen. Momentu hau niretzat oso garrantzitsua izan zen. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiet momentu garrantzitsu hau nirekin bizitzeagatik.

Ane Asensio Telletxea

Goiz pasa



Goizeko lehen ordua ikasgelan pasatu ondoren, bizikletak eta kaskoak hartu eta bidegorritik Hibaika arraun elkartera joan ginen. 25-30 minutu inguruko ibilbidea egin genuen taldean eta 6 km inguruko distantzia erritmo gozoan burutu genuen. Hara iritsi ginenean, arraunaren munduaz pixka bat hitz egin zigun Amaiak eta arraun egiteko dauden ontzi desberdinek zer ezaugarri dituzten azaldu ziguten: batelak, trainerilak, traineruak.... Marea oraindik behegeri zegoenez, ezin genuen uretan arraun egin; beraz, bitartean bi taldetan banatu eta batzuk fosan (instalakuntzen barruko putzua, arraunean ikasteko) egin zuten, eta besteek, berriz, ergometroan (arraun mugimendua simulatzen duen gimnasioko makina). Marearen maila pixka bat igo zenean, bi taldeek batera Ala deituriko ontzia hartu eta errebara atera ziren. Lehenengo, talde batek egin zuen, beste taldea gimnasioan, fosan edo ergometroan zegoen bitartean. Gimnasioan, pesak, etab. zeuden. Hauetaz gain bizikleta estatikoa ere egin zezaketen.



Gutxi gorabehera, 15-20 min egon zen talde bakoitza, zia, boga, babor, estribor, palada, serie, luze... kontzeptuak praktikan jarritz. 2. taldeak bukatzean, denek batera "Ala" jaso zuten. Hamaietakoa egin, bizikletak hartu eta berriro bueltatu ziren ikastolara. Goiz borobila izan zen, gorputza astintzeaz gain buruan kontzeptu berriak ekarri genituelako geurekin.

Eskerrik asko, Hibaika!



DBH 4

Alkateordearen bisita



Ikasturte honetan ekonomiaren arloan murgiltzen hasi gara, eta ederki murgildu ere! Lehen hiruhilekoan Gipuzkoako Foru Aldundia landu genuen, bertako departamentu ezberdinak eta funtzionamendua ikusi, ikasi eta aztertu genituen. Azkenik, ohikoa den bezala, azterketa egin genuen. Horrez gain, Eusko Jaurlaritza ere landu dugu. Bukatzeko, udala aztertu dugu; hainbat sail eta bakoitzaren ardurak ikusi eta aztertuz, baita Oiartzungo eta beste herri batzuetako diru-sarrerak eta gastuak ere. Sortu zaizkigun galderei erantzuteko eta zalantzak argitzeko, Eneritz Arbelaiz, Oiartzungo alkateordea, etorri da gurera.

Baina zer ikasi dugu berarekin? Hasteko, udalaren antolamendua: zinegotzien kargua, langileria, bertako sailak, langileen funtzioak... Ondoren, aurrekontuari buruz hitz egin zigun: diru-sarrerak zein diren (enpresek ordaindu beharreko tasak, herritarron zergak, transferentzia arruntak...) eta udalak zer gastu dituen (Oiartzungo elkarteei/erakundeei diru laguntzak ematea, langileei beren soldata ordaintzea, zorrak ordaintzea, herrian egin behar diren inbertsoak ordaintzea). Udalean egon diren gorabeherei buruzko informazioa ere eskaini zigun eta, azkenik, gazteoi eskaintzen dizkiguten aukerei buruz ere hitz egin zigun. Bilera bat egin zuten gazteen interesei buruz gehiago jakiteko, eta, bertan lortutako iritzi eta informazioarekin, ematen zaizkien zerbitzuetan hobekuntzak egiteko konpromisoa hartu zuten.

Kurtsoan zehar berarekin berriz bil gaitezkeelakoan,

Mila esker gurera etortzeagatik, Eneritz!





DBH

Matematikako Udaberri Lehiaketa

Ikasturte honetan ere Haurtzaro Ikastolak Matematikako Udaberri Lehiaketan parte hartu du. Aurten 22. edizioa bete duen lehiaketa honetan bigarren urtez izan ditugu gure DBHko ikasleak.

Lehen fasea ikastolan bertan egin genuen eta 100 ikasle animatu ziren proposatutako erronkei aurre egitera; 48 DBH 1.-2. mailetan eta 52 DBH 3.-4. mailetan. Hori egin ostean, 7 ikaslek bigarren fasera igarotzeko aukera izan zuten: DBH 1eko Haitz Aranburu, Elene Etxegarai eta Suhar Aristegi; eta DBH4 ko Malen Elizasu, Maider Iparragirre, Julen Lasarte eta Laiene Aranburu.

Aipatutako bigarren fase hori egitera Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatera joan ziren ikasleak. Bertan Euskal Herriko beste ikastetxeetako ikasle askorekin batera esperientzia berri hau bizitzeko aukera izan zuten.

Hona hemen lehiaketan parte hartu duten ikasleen kontakizuna esperientzia honi buruz:



Laiene Aranburu

Zergatik parte hartu zenuen?

Irakasleek animatu ninduten parte hartzera eta, azterketa betetzeak lan askorik eskatzen ez zuenez, bete egin nuen.

Zer moduz aurkitu duzu zure burua?

Egia esan, Ikastolan egin genuen azterketa errazagoa iruditu zitzaidan, eta Bilbon egin genuena askoz ere zailagoa. Ez dut uste diferentzia handirik zegoenik bi azterketen artean, baina ingurua desberdina zen, eta ahal dudan guztia egin dudala iruditzen zait.

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Gehien gustatu zaidana Bilboko Zientzia eta Teknologiako Unibertsitateen zentroa ezagutzea izan da. Agian hemendik hiru urtera bertan izango naizelako eta nolako den ikusteak ez du ezer txarrik.

Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?

Oso esperientzia polita dela iruditu zait. Azken finean, beste mundu bat delako Unibertsitate ingurua.

Malen Elizasu

Zergatik parte hartu zenuen?

Patxi klasean esan zuen aurreko urtean bezala aurten ere aukera izango genuela berriz ere parte hartzeko. Beraz, galtzeko ez nuenez ezer, esperientzia berri bat bizitzea pentsatu nuen.

Zer moduz aurkitu duzu zure burua?

Bi faseak oso zailak iruditu zaizkit, baina presiorik gabe joan nintzenez, ahal nuena egin nuen.

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Bertan zegoen jendetza eta denen arteko giroa gustatu zait.

Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?

Egia esan, lagunartean igaro dut denbora, eta nahiz eta seriotasun puntu bat egon antolatzaileei zegokienez, guk umoretsu hartu dugu esperientzia.

Maider Iparragirre

Zergatik parte hartu zenuen?

Matematikako irakasleak animatu ninduen, eta aukera izugarria iruditu zitzaidan gutxienez nire matematika arloko maila ikus dezadan.

Zer moduz aurkitu duzu zure burua?

Lehenengo fasea oso erraza egin zitzaidan bigarrenarekin alderatuz. Hala ere, presiorik ez nuenez, lasai hartu eta bi probak egitea besterik ez nuen.

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Gehien gustatu zitzaidana bertako giroa izan zen. Horrez gain, unibertsitateko instalazio guztiak ikusi ahal izatea ere ikaragarria izan zen.

Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?

Esperientzia zoragarria izan da, batez ere leku berriak ezagutu eta esperientzia berri bat bizitzeko aukera oso ona izan delako. Horrez gain, bai bidaian eta bai bertan ere, umorea ez zitzaigun falta, eta nire aldetik itzel pasa genuen goiza.

Elene Etxegarai

Zergatik parte hartu zenuen?

Egun batean matematikako irakaslea gelara sartu zen eta galdetu zigun ea udaberriko matematika lehiaketan parte hartu nahi genuen eta ni animatu egin nintzen.

Zer moduz aurkitu duzu zure burua?

Esan zidanean bigarren fasera ea pasatu nahi nuen oso pozik jarri nintzen eta baietz esan nion.

Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?

Esperientzia oso polita izan da, batez ere espero ez nuen sorpresa bat izen zelako. Bilboko unibertsitatean oso giro ona zegoen eta jende pila bat joan ginen.

Suhar Aristegi

Zergatik parte hartu zenuen?

Klase baten bukaeran irakasleak proba bat egiteko proposatu zigun gelari, notarako kontatuko ez zuena, eta gela erdiak gutxi gora behera baietz esan zuten. Irakasleak esan zigun gero bigarren fasea zegoela.

Zer moduz aurkitu duzu zure burua?

Klase aldaketa batean irakasleak ateratzeko esan zidan eta orduan esan zidan hurrengo fasera pasatu nintzela. Ni oso oso pozik jarri nintzen, irrikaz nengoen joateko, eta baietz esan nion, joango nintzela.

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Esperientzia berri bat izan zen, oso pertsona gutxik egin dezaketena, jende guztia ez baita aukeratua izaten matematikako lehiaketa batera joateko.

Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?

Han oso giro ona zegoen. Jende asko ginen eta unibertsitatean sartu eta beste giro bat zegoen. Lehenengo azterketa errazagoa egin zitzaidan eta bigarreanean tentsioa eta nerbioengatik zailagoa egin zitzaidan, baina oso gustura gelditu nintzen eta esperientzia oso polita iruditzen zitzaidan.

Julen Lasarte

Zergatik parte hartu zenuen?

Gelan egindako proba motza egin eta gero Bilborako klasifikatua nintzela jakin nuen. Aukera ez galtzea erabaki nuen, esperientzia berri bat izateko gogoz.

Zer moduz aurkitu duzu zure burua?

Txapelketan ikusi nuenez, jendeak sekulako erraztasuna du matematikatarako, ni unibertsitatea ikustera eta txapelketa nolakoa zen ikustera joan nintzen gehienbat, ez hurrengo fasera pasatzera, baina ahal nuena egin nuen behintzat.

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Gehien gustatu zaidana oso esperientzia diferentea dela da; nik kiroleko txapelketetan parte hartu ohi izan dut, baina ez inoiz buru azkartasuna eskatzen duen txapelketa batean. Oso desberdina iruditzen zait, eta giro oso ona zegoela baita ere.

Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?

Hitz gutxitan, ongi pasatu nuen txapelketan eta baita kideekin ere, eta ez zen gaizki egongo hurrengo urtean berriz joatea.

Haitz Aranburu

Zergatik parte hartu zenuen?

Duela hilabete inguru, Anderrek (matematikako irakasleak) ea Matematikako Udaberri lehiaketan parte hartu nahi genuen galdetu zigun. Nik berehala baiezkua eman nion, bitan pentsatu gabe.

Handik egun batzuetara, lehenengo faseko proba egin genuen gelan bertan. Ez zen hain erraza izan, baina egun berean esan zidatenean bigarren faseko sailkatu nintzela ezusteko ederra hartu nuen.

Zer moduz aurkitu duzu zure burua?

Hasieran irrika handia nuen Leioako bigarren faseko proba egitera joateko, baina eguna gerturatuahala zalantza ugari etortzen zitzaizkidan burura. Dena den, azkenean baiezkua eman nion irakasleari.

Lehiaketako probaren egunean, justu samar iritsi nintzen Leioako unibertsitatera, baina halere arazorik gabe burutu nuen. Nabaritzen zen bigarren fasea zela; izan ere, ariketak dezente zailagoak ziren nire iritziz. Behin proba eginda, giro ederra zegoenez, bertako kafetegian geratu ginen uneaz gozatzen.

Nola laburtuko zenuke zure esperientzia?

Niretzako esperientzia berria eta ezberdina izan zen Matematika Lehiaketakoa, esperientzia paregabea. Datorren urtean ere gustatuko litzaidake berriro parte hartzea; bi hitzetan, "errepikatzeko modukoa".




Zarata ala soinua ikastolan?

Aurten Agenda 21eko gaia «Zarata ala soinua?» denez, DBH 4ko ikasle talde bat soinu neurketak egiten aritu da zenbait egunetan zehar, ordu eta espazio ezberdinetan (gelak, korridoreak, frontoia, hamaiketako gela, areto nagusia, eskailerak eta komunak). Bertatik informazio ezberdina lortu dugu.

Zein zarata mailatan ibiltzen gara ikastola orduetan?


MINIMOEN, MAXIMOEN ETA BATEZBESTEKOEN KAXA-BIBOTE DIAGRAMAK




MINIMOAK IKUSIAZ



MAXIMOAK IKUSIAZ




BATEZBESTEKOAK IKUSIAZ




n	25
Batezbestekoa	65.28
σ	8.5019
s	8.6772
Σx	1632
Σx^2	108344
Min	43
Q1	60.5
Mediana	69
Q3	70.5
Max	76

Zein dira muga jasagarriak?



Zenbateko kutsadura akustikoa dugu?


0. SOLAIRUA




KOLOREEN ESANAHIA

- Kutsadura maila atsegina
- Kutsadura maila onargarria
- Kutsadura maila deserosoa
- Kutsadura maila kaltegarria
(denbora luzez, osasunean kaltea sor dezakeena)


1. SOLAIRUA (TEKNO+LABORATEGIA+KORRIDORE)



2. SOLAIRUA (4C+KORRIDOREAK)



2. SOLAIRUA (4C+KORRIDOREAK)





Eta orain zer?

Zein neurri proposatuko ditugu hau hobetzeko?

PROPOSAMENAK:

- Korridoreetan, gelara sartzerakoan buila gutxiago egitea. Horretarako, bakoitzak bere aldetik ekarpena egin behar du.
- Oro har, arazoa korridoreetan dago. Horretarako egin dezakegun bakarra bakoitzaren ekarpena da.
- Semaforo bat egitea, soinua igotzean soinua egiten duena.
- Isiltasun kartelak egitea ("Isiltasuna mantendu, mesedez")
- Frontoian akustika hobetzea.
- Ez ikasleek, ez irakasleek builarik ez egitea.
- Buila gutxiago egingo dugu, dezibelioak ez ditugu igoko.
- Korridoreetan dezibelioak neurtzeko makina jartzea, jakiteko zenbat jaitsi behar dugun tonua.
- Astero erakustea zenbat dezibelio dauden, jakiteko zer tonu erabili behar dugun eta kontrolatzen hasteko.
- Gelak gehiago intsonorizatzea (kortxoak, goma).
- Argi iturri isilak erabiltzea.
- Gelakideak kontzientziazatzea soinuaren ondorio kaltegarriak kontuan hartuz.
- Elkarri laguntzea dezibelioak jaisteko. Hau da, norbaitek garrasika hitz egiten badu, baju hitz egitera animatzea.
- Ikastolan soinu desatsegin bat jartzea 80 dB-tik pasatzen denean.
- Gure artean baju hitz egitea.
- Hitzaldi bat antolatzea, jendea ohartarazteko zeinen kaltegarria izan daitekeen zarata.
- Eskaileretan eta korridoreetan buila gutxiago egiten saiatzea.
- Orokorrean, leku ezberdinetan jende gutxiago elkartzea.
- Bolumen altua sumatzean, ingurukoei isiltzeko eskatzea.



Ikusi arte

Kaixo, euskararen lagun:

Orain 4 urte hartu genuen Eskuttun taldearen trena. Bertako lehenengo bagoian sartu eta pixkanaka azkeneko bagoiraino iritsi gara. Urtez urte batetik besterako pausoa eman dugu, hasieran genuen jakintza hori handiagotzen eta gure arteko harremanak sendotzen.


Azken urteotako bidaia honetan, kanpaina ugari izan ditugu, eta beste hainbat ekimen. Aipatzekoak dira, Korrika, Euskararen Eguna, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera... Eskerrak eman egun horietan gurera laguntza ematera hurbildu zareten guztiei gurekin urtero bezala kontaktuan jartzeagatik eta gu aintzat hartzeagatik.

Egia esan, esperientzia berri bat izan da guretzat. Nahiz eta asteen behin soilik ordubeteko batez elkartu, urtean zehar oso presente izan dugu uneoro. Besteen esperientzietatik ikasi eta gurea aberasten joan gara, gure esperientzietatik ondorengoak elikatzeko. Lau urtetako ikasleak bat egitean sortzen den indarrak jabetu gara; taldean gehiago garela. Ekintza txikiez bide sendoa osatzea lortu dugu.

Gidari moduan Doni eta Maider izan ditugu, baita Haizea eta Uxue ere. Harrera goxoa egin ziguten eta horrela tratatu gaituzte denbora honetan. Mila esker lauoi tren hau bide zuzenetik gidatzeagatik eta guregatik egin duzuen lan guztiagatik!

Lasai, ez gara trenetik inoiz jaitsiko!

Eskuttuneko DBH 4ko euskarazaleak





Eskolaz kanpoko ekintzak



Azken ikasturteetan, eskaintzen diren ekintza guztietako parte-hartzea handituz doa eta **ANTZERKIAN** ere izugarrizko gorakada egin du neska-mutilen parte-hartzeak.

8 antzerki talde ditugu ikastolan LH 1. mailatik LH 6. mailara bitartean; guztira **76 neska-mutil** eta **beraien esanetan oso gustura** aritzen dira saio hauetan.

Lan handia egiten dute ikasturtean zehar, bai ikasleek, bai monitoreek. **Gauza asko ikasi eta lantzeko aukera** eskaintzen dute antzerkiko saioek; **jendaurrean agertu eta hitz egiteko gaitasuna landu, talde lana, taldekidetasuna, sormena, irudimena, memoria, etab.**

Lur Korta, aktorea, Haurtzaro ikastolako guraso eta gure ikastolako antzerkiko monitoretako bat da Maider Galartza, Saioa Aizpurua eta Asier Oruesagastirekin batera.

Lur Kortaren esanetan, ikasleak antzerkiko saioetara gogotsu eta ilusioz joaten dira, baina egia da batzuek jolaserako gogo gehiago izaten dutela, eta beste batzuek, berriz, lanerako irrika. Adinaren arabera, interesak aldatuz doaz eta antzerkiko saio hauetan hori ere kontuan hartzen saiatzen dira; hau da, gidoiak sortzeko garaian ikasleen intereseko gaiak kontuan hartzen dira eta, monitorean laguntza badute ere, ikasleek parte handia izaten dute sormen lan horretan.

Ikasleen esanetan, oso ongi pasatzen dute antzerkiko saioetan eta ikasturte bukaeran, urduritasuna, gogoia eta askotan esaten den "tximeletak sabelean" ere sentitzen dituzte emanaldiaren atarian.





Arrakasta handiko emanaldiak izaten dira; familiakoak ez ezik, lagunak ere gerturatzen dira eta erabateko aktore txikiak ateratzen dira oholtzara. **Asko ikasten dute, asko dute ikasteko, baina asko ikasten dugu haiengandik ere!**

Antzerkian sormena lantzen dutela esan dugu eta sortze lan horretan emanalditarako beharrezko materiala ere sortzen dute behar izanez gero. Horretarako eskulanak egiten dituzte. Hala ere, eskulanak egiten ikasteko beste ekintza bat ere badugu: **ESKULANAK.**

Ekintza honek ere izugarrizko arrakasta izaten du. Bi monitore aritzen dira ikasle hauekin **egunero-egunero sormen lanean**; Laida eta Itziar. Izugarrizko ideia pila ekartzen dituzte haurrek eskulanak eginez, **teknika eta material mota ezberdinak erabiliz**, gehienez **birziklatuz**, ikasleek jostailu, jolas eta bestelako **material erabilgarria** edo apaingarriak **sor ditzaten**.

Adinaren arabera eta ikasleen arabera gaitasunak kontuan izaten dira, baita interesak ere.

Egindako eskulanean artean...**TXOTXONGILOAK, JOLAS SINBOLIKORAKO MATERIALA (pastelak, izozkiak, argazki kamerak...), LIBURUXKAK, ARGAZKIENTZAKO MARKOAK...**

Antzerkia eta eskulanak, ikastolan egiten diren eskolaz kanpoko ekintzetako bi dira, baina ikasturteko eskaintza oso zabala izaten dugu ikastolan eta eskaera ere handituz doa. Aurten 525 ikasle ditugu kultura zein kirol jardueretan. Haur Hezkuntzan hasi 4 urterekin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4.mailara arte.

JOLAS TXOKOA ESKULANAK DANTZA
GARAUKIDEA BERTSOLARITZA EUSKAL
DANTZAK DANTZA TXAPELKETAK
ANTZERKIA MUSIKA TAILERRA
ABESBATZA ATLETISMOA ESKOLA KIROLA
KENPO XAKEA

Ekintza hauez gain, azken urteetan beste ekintza berri batzuk ere eskaini dira; robotika, gitarra, parkour, gimnasia erritmikoa eta mekanografia.

47. promozioa

Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu: gora gu eta bizarrak!

Gaur irakurri dugu ingelesez agur esateko gutxienez ehun hitz edo esamolde daudela. Inori ez zaio gustatzen agur esatea, baina beti iristen da ordua. Hau da gurea : 14:17, DBH4 jantokiko mahaitik.

Ez gara inoiz trebatu agurrak inprobisatzeko lanetan. Beraz, originaltasun gutxiko zerbait eginez amaituko dugu. Badugu Azkue irabazi duenik mailan, baita txirrindulan aditua denik ere, pilotan ibiltzen direnak, eta baita futboleko edo eskaladan ere, dantzan, kantuan, yogan, atletismon eta spinning-en. Guztiok dugu bereizten gaituen zerbait, eta beti izango dugu, hala jaio baikara, bakar. Ez gara ohartu, alabaina, 14:35ean gordelekua utzi eta oihanera irtengo garela. Geratzen zaizkigun 18 minutu hauetan agurrei biraka ibiliko gara, «agur betiko, maite zaituztegu» edo «hau ez da agur bat, gero arte baizik» bezalakoak ipintzen, eta ez, kaka hutsa.

Besterik gabe, gogoratu Haurtzaron irakurtzen eta idazten irakatsi zigutela duela 10 urte. Gezurra dirudiela sortu dugun hori guztia pixkanaka-pixkanaka sortzen eta aberasten joan garen talde honi, beti gogoan izango dugunari, agur esateko momentua iritsi dela. Ez ditugu ahaztuko algarak, zigorrak, bidaia, aholkuak, amodiozko kartak, jolasak... eta noski, bidaia honetan berezi egin gaituztenak: irakurketa fitxak, txingak eta txangoak, jantokiko koadernoak, fisikako klaseak karbono 14a lantzen, Kongora bidaia, kritikak, telefono deiak, eta bai, noski, zuek.

Mila esker, benetan eta bihotz-bihotzez.



Aurrejubilazioak

Idazkaritzako Arantxa Urbietza izan zen lehena, azken urteetan HHn zegoen Maxux Retegi bigarrena eta DBHn zegoen Maribi Alonso azkena. Hiruei iritsi zaie aurrejubilazioaz disfrutatzeke garaia. Garai berria, erronka berriak.

Bejondeizuela hiruei!



Azkue Sariak

Urtero egiten den Azkue literatur lehiaketan, Haurtzaro ikastolako lau ikasle saritu dituzte.

10-13 adin tartean, DBH 1. mailako Lur Lopez, «Lehen eta orain» olerkiarekin, eta Maialen Leiza eta Uxue Etxebeste, «Betirako maitasuna» eta «Txiro naiz eta txikia naiz» narrazioekin, hurrenez hurren.

14-17 adin tartean, berriz, DBH 4. mailako Anne Arrizabalaga saritu dute, «Ahul egin zintuena» olerkiarekin.

Sari-banaketa apirilaren 18an egin zen Bilbon.

Gure zorionik beroena saridunei!



Elkar literatur lehiaketan eta zozketan saridun

Urtero bezala, aurten ere, Elkarrek antolatzen duen Ilustrazio eta Literatur lehiaketan DBH 1 eta 2. mailako hainbat ikasle parte hartu dute. Hauen artean, DBH 2. mailako Oihane Irastorzak, bere kategorian, 1. saria irabazi du "Amonaren amantala" izeneko ipuinarekin.

Bestalde, lehiaketan parte hartzen duten gazte txoen artean egindako zozketan, DBH 1. mailako Enara Jauregiri egokitu zaio saria, Basque Culinary Centre-ra bisita hain zuzen.

Gure zorionik beroena bie!

Gure zorionik beroena saridunei!



1)

Lehen eguneko argazkia
jada gelditu da zaharra
Baina hori da ahaztu nahi
ez dudan une bakarra
Orain bukaerari begira
sentimenduak ahultzen dira
edo pizten doa garra?
Hitz goxoak armairuan gordez,
irriparrak bitaminan ordez,
bideratzen da iparra

2)

Sartu ginen ume txiki
inozenteak ginala;
dagoeneko handitu da
gure adinan eskala
Ta bagoaz xuabe-xuabe
erabat oraindik joan gabe
arinaka gabiltzala
Ikastola bihurtu da jada
gure helmuga guztietara
laguntzen gaitun itzala

3)

Ausartu gara askotan
berriz salto egitera
iristeko lautada bat
genuen gunen batera
ta harremanak jarrai dezala
ikastolatik irten ahala
lortuko dugu batera
zenbat momentu ta abentura
bidea amaierara heldu da
ta goazen berriz hastera



Doinua: HARITZAREN MEMORIA

